



Hatza mapa gainean
Pello Lizarralde
Pamiela, 1988.

Sasi eta asuin

JOAN BERRI DEN urte zaharreko liburu onenen artean jarriko nuke, ezbairik gabe, Pello Lizarralderen azkena, *Orbanak*. Soil-sotila, zurruna, intentsua, tentsioz betetako nobela su ez-titan ondua. Ondo dio eleberriak western bat filmatzeko ematen duela dioenak. Eta ez da bakarrik azken liburua, aurrekoak ere halakoxeak ditu, *Iragaitzaz* –ilunbistan–, *Larrepetit*, *Un ange passe* –isilaldietan–, *Sargori*; onak. Ez nizkion ezagutzen hasierak, 80koak, baina banuen erreferentzia baliotsua: *E pericoloso sporgersi* lehen nobela aitatu zuen Harkaitz Canok –eta Cano beti da garantia– liburu ahantzien Sautrela hartan. Bilaketa hasi nuen bada. Alferrik. Deskatalogatua. Aurkiezina. Desagertua. Lehen nobela eskuratzeko ezintasunak ekarri ninduen *Hatza mapa gainean* bigarren honetara.

Haria ez du sobera konplexua: ez dakigu nondik, zer, norengandik, baina ihesean dabilena da liburu-konponatzailearen protagonista. Mendian gora, behera, inolako heldulekurik gabe: ez dakigu zer egin duen, zerbait, nor den, non dabilen. Euskal Herrian bai, hori seguru, ez bakarrik “intxaur batzuk, gazta eta ogia” jaten dituelako, ez bada “errosarioa erreza-tzen” entzuten delako. Ekintza ez armatu ez bestelakorik gabea da testua. Ihesa da osoa, sasi eta asuin. Ia ez da agertzen bestelakorik. Soilik neska batek lagunduko dio zereginean; tira, lagundu, hori irakurleak ebatzi beharko du irakurketa bururatu

ondorenean. Beste ezer gutxi, eztarriko mina bizia-gotuko zaiola kontakizunak aurrera egin ahala, irakurleak min hori sentitzeraino.

Eta ez da Lizarraldek pertsonaia bat ihesean jartzen duen lehen aldia. *Orbanak* nabarmendu dugunez, esan, bertako pertsonaia nagusietako bat, menditarra, orbanduna, zordun zaiola *Hatza mapa gainean* honetakoari. Oso zordun. Ez da, deabruak guarda, inondik ere salaketa. Pentsa, erremixaren alde bagaude eta, beti ere, Fermin Muguruza gogotan, zerbait berria aportatzen badu. Eta Branimir Sceanovicen *A boca chea de terra* hura ere gogorazi dit, are, uneren batean, jazartzaileak imajinarioak direla pentsa daitekenean. Oroitzapen ona.

Azken buruan, tanta bat da *Hatza mapa gainean* Lizarralderen obra osoan. Nobela laburtzat hartzen bada ere, ipuin, eta ez oso luzea, baita finean –Lizarralderen lehen ipuin argitaratua, inork ezeztatu ezean–. Zergatik ekarri hartara ipuinxo bat tarte honetara? Bada ez soilik halakoak gomendatzea, euskarri dijital berrieekin eta abar, erabat gaurkoa delako –hala berreskura liteke, luze gabe, *E pericoloso sporgersi* deskatalogatua–. Baizik eta batez ere izan zelako literatura obra ezin interesgarriagoa martxan jarri zuen hastapen hazietako bat. ■

Aritz Galarraga

